

Erdigunearen bila

ORAIN dela urtebete, Iruñeako Anaitasuna mendialdea Pyrenaicara hurbildu zen, 2007 urtean klubaren 50 urteurrena ospatzeko baitziren eta, hori dela eta, ekitaldi bat egin nahi baitzuten, Euskal Herriaren erdigunean festa bat, alegia. Eskatzen ziguten puntu hori bilatzen laguntzea. Kartajanarirekin jarri ginen kontaktuan, eta hasi egin zen berau bere kalkulak egiten.

Berehala pasatu zigun lehen txosten bat, zeinean munduan orain dela mende bi herrialde baten erdigune "geografiko" edo "fisikoa" aurkitzeko erabiltzen diren erizpide desberdinak aipatzen baitziren. Erizpide geometrikoak gainazal irregularretan aplikatzea zaila denez gero, eta horren ondorioz herrialde baten erdigunea bere mugetatik kanpo -adibidez, itsasoan- agertzea ere posible zenez, Kartajanarik aurrera egin zuen bestelako kontzeptu geografiko batekin. Barneen geratzen den puntua bilatu zuen, hots Euskal Herriaren barruen geratzen den puntua, bere muga guztietatik puntu urrunduena, Crane lehengusuek beren "Journey to the Centre of the Earth" ospetsuan lortu zuten bezalakoa. Txinan kokatu zuten, Singkiangetik iparraldera, Lurrean barruen geratzen den puntua, ozeano guztietatik gehien aldentzen dena.

Bere kalkulu trigonometrikoen arauera, Euskal Herriaren erdigunea Iruñeako merinaldeko leku baten kokatzen da, Olza, Egillor eta Ariz herrien artean, hiru udalok batzen diren puntutik gertu. Eta in situ baieztatzeko, haraxe joan ginen neguko egun baten talde handi bat, GPS eskuan genuela, ingurua nolakoa zen bilatzera. Kokatu genuen puntua xehetasun pixka batez. Leku basatia suertatu zen, oso jende

gutxi hurbiltzen den artadi eder baten kokatua. Gustatu zitzaigun tokia: oroigarriko tumulu txiki bat eraiki genuen eta argazkiak atera genituen, nahiko pobreak zeren, lehenago esan ez badut ere, euria egiten baitzuen, etengabe. Eta ospatzeko, Ollora joan ginen bazkaltzera, non lehenagotik "Gure Sustraiak" ostatua gomendatua baitziguten, eta benetan ondo tratatu gintuztela.

Hilabete pare bat geroago berriak ailegatu zitzaizkigun Euskal Herriaren erdigunea 2004 urtearen amaieratik adostuta zegoela, data haietan Berriaren eta gero bestelako komunikabidetan ere argitaratu ondoren. Gainera, Irurtzongo Iratxe Elkarteak antolatuta egiten zuen Sakanaren inguruan ibilbide bat Euskal Herriaren erdigunetik pasatzen zelako erakarpenez, zeina Beriainen dagoen San Donato basilikatik ez urruti kokatzen baitzen. Grabitate-erdigunearen erizpidea zen eta ikerketa Felix Isasa industri ingeniari sanpedroarrarena zen. Eta eskatu genien aditu biei kontaktuan jar zitezten. Elkartu egin ziren, eztabaidatu egin zuten, berriro eztabaidatu zuten eta akordio batera heldu ziren.

Konsidera dezagun Euskal Herriaren erdigunea grabitate-erdigunea dela, bere gainazalaren puntu guztien koordenatuetan oinarrituta kalkulatu, eta kokatu egiten dena Olibesario deritzon lekuan, Andiako mendizerran, Pyrenaicaren ale honen artikulu baten ikus dezakezuen bezala. Euskal Herriaren puntu barruena bitxikeria geografikoa bezala geratzen da eta berau kalkulatzeko era ale honen Azterketak atalean aurki dezakezue. Anaitako lagunek datu gehiago dute festak ospatzeko.

Buscando el centro

AHORA hace un año, el club Anaitasuna de Pamplona se acercó a Pyrenaica porque en 2007 iban a celebrar el 50 aniversario del club y tenían previsto que uno de los actos fuese una fiesta en el punto central de Euskal Herria. Nos pedían que les ayudásemos a encontrar ese punto. Nos pusimos en contacto con Kartajanari, que empezó a hacer sus cálculos.

En seguida nos pasó un primer informe, que empezaba por enumerar los diferentes criterios que se llevan utilizando desde hace dos siglos en el mundo para identificar el centro "geográfico" o "físico" de un país. Como los criterios geométricos son difíciles de aplicar en superficies irregulares, y podía resultar incluso que el centro de un país apareciese situado fuera de sus fronteras, por ejemplo, en el mar, Kartajanari fue adelante con otro concepto geográfico. Buscó el punto de internamiento o de adentramiento, es decir el punto más interior del país, el lugar que está más alejado de todas sus fronteras, al estilo del que consiguieron alcanzar, por ejemplo, los primos Crane en su famoso "Journey to the Centre of the Earth". Situaron en China, al norte de Singkiang, el punto más interior de la Tierra, el que está más alejado de todos lo océanos.

Según sus cálculos trigonométricos, el centro de Euskal Herria está situado en un lugar de la merindad de Pamplona, entre las localidades de Olza, Egillor y Ariz, muy cerca del punto de confluencia de los tres municipios. Y para comprobarlo in situ, allí nos fuimos un día de invierno una cuadrilla grande a buscar, tirando de GPS, cómo era el lugar. Localizamos el punto con

cierta meticulosidad. Resultó un sitio salvaje, en un hermoso bosque de encinas muy poco frecuentado. El sitio nos gustó: construimos un pequeño túmulo conmemorativo y nos sacamos fotos, bastante pobres porque, aunque no lo he dicho antes, llovía, no paraba de llover. Y para celebrarlo nos fuimos a comer a Ollo, donde nos habían recomendado el albergue-posada "Gure Sustraiak", y de verdad que nos trataron muy bien.

Un par de meses después nos fueron llegando noticias de que ya estaba consensuado el centro de Euskal Herria, desde finales de 2004, en que se había publicado un artículo en Berria y luego se había difundido por otros medios. Incluso la Sociedad Iratxe, de Irurtzun organizaba una travesía alrededor de la Sakana, con el plato fuerte de pasar por el centro de Euskal Herria, que se situaba no lejos de la ermita de San Donato, en Beriain. Era el criterio del centro de gravedad y el estudio se debía al ingeniero industrial sanpedrotarra Félix Isasa. Así que pedimos a los dos expertos que se pusiesen en contacto. Se encontraron, lo debatieron, lo volvieron a debatir y llegaron a un acuerdo.

Consideramos que el centro de Euskal Herria es el centro de gravedad, calculado en base a las coordenadas de la totalidad de los puntos de su superficie, y que se localiza en el lugar llamado Olibesario, en la sierra de Andia, tal como podéis ver en un artículo de este número de Pyrenaica. El punto más interior del país queda como una curiosidad geográfica y su forma de cálculo la podéis encontrar en la sección de Estudios de este mismo número. Los amigos del Anaita tienen más datos para celebrar sus fiestas.

Txomin Uriarte